

C2.- Konposatu organiko bat % 51,9 karbonoz, %13,2 hidrogenoz eta %35,5 oxigenoz osatuta dago, eta haren masa molekularra 46,0 da.

Kalkula ezazu arrazoituz:

- Konposatuaren formula molekularra eta zein izan litezkeen haren isomeroak (aipa itzazu).
- Haien arteko isomero batek azido etanoikoarekin erreakzionatzen du, eta erraz oxidatzen da. Idatz itzazu gertatzen diren erreakzioak, eta izendatu osatzen diren produktuak.

a) Formula molekularra

Kontuan hartuz formula bateko elementu bakoitzaren **azpiindizeak** mol substantzia bakoitzean **zenbat mol elementu horietatik** dauden adierazten duela:

$$n(C) = 46 \frac{g}{mol} * \frac{51,9 g C}{100 g} * \frac{1 mol C}{12 g C} = 1,99 \frac{mol C}{mol} \rightarrow C_2H...O...$$

$$n(H) = 46 \frac{g}{mol} * \frac{13,2 g H}{100 g} * \frac{1 mol H}{1 g H} = 6,01 \frac{mol H}{mol} \rightarrow C_2H_6O...$$

$$n(O) = 46 \frac{g}{mol} * \frac{35,5 g O}{100 g} * \frac{1 mol O}{16 g O} = 1,02 \frac{mol O}{mol} \rightarrow C_2H_6O$$


C2.- Konposatu organiko bat % 51,9 karbonoz, %13,2 hidrogenoz eta %35,5 oxigenoz osatuta dago, eta haren masa molekularra 46,0 da.

Kalkula ezazu arrazoituz:


- Konposatuaren formula molekularra eta zein izan litezkeen haren isomeroak (aipatu itzazu).
- Haien arteko isomero batek azido etanoikoarekin erreakzionatzen du, eta erraz oxidatzen da. Idatzi itzazu gertatzen diren erreakzioak, eta izendatu osatzen diren produktuak.

a) Isomeroak

Formula molekular horretan insaturaziorik ez dagoela ikusten da. Bi isomero dira posible: etanol eta dimetileter.



etanol



dimetileter

C2.- Konposatu organiko bat % 51,9 karbonoz, %13,2 hidrogenoz eta %35,5 oxigenoz osatuta dago, eta haren masa molekularra 46,0 da.

Kalkula ezazu arrazoituz:

- Konposatuaren formula molekularra eta zein izan litezkeen haren isomeroak (aipa itzazu).
- Haien arteko isomero batek azido etanoikoarekin erreakzionatzen du, eta erraz oxidatzen da. Idatz itzazu gertatzen diren erreakzioak, eta izendatu osatzen diren produktuak.

b) Erreakzioak

Lehenengo erreakzioa kondentsazioa da (esterifikazioa) eta bigarrena oxidazioa. Oxidazioak jarrai dezake azidoa eman arte.

